

## MUSIKALA

### Jarduera

Antzerkia, dantza eta kantua batzen dituen genero hau modu dibertigarrian lantzea.

### Deskribapena

Musikalek antzerkia, dantza eta kantua uztartzen dituzte. Genero hau geroz eta hedatuagoa dago eta, horregatik, antzokietan nahiz pelikuletan edota telesailetan ikus daitezke gaur egun. Horren adibide dira *Grease* pelikula eta *Goazen!* telesaila. Tailer honetan, gazteek musikal batek duen estruktura nolakoa den ikusi eta praktikan jarriko dute modu dibertigarri batean, honela, memoria, mugimendua eta sormena lantzen dituzten bitartean.

### Helburuak

- Mugimendua eta koordinazioa lantzea.
- Ahotsa eta kantua lantzea.
- Erritmoa eramaten jakitea.
- Talde lana indartzea eta errespetua lantzea.
- Herritarrek parte hartzeko guneak sortzea.

### Programa

#### 1. Hiruhilekoa

- Zer dira musikalak? Musikal ospetsuenak.
- Musikalaren estrukturak lantzea.
- Istorioak sortuz.
- Beroketak eta interpretazio ariketak jolas desberdinen bitartez.
- Koreografiak eta pauso desberdinak.
- Ahotsa berotu, eskalak landu.
- Abestiak prestatu eta abestu. Bai taldeka eta baita bakarka ere.
- Dantza eta koreografiak elkarrekin. Zailtasunak.
- Kurtso amaierako musikal txikia prestatu eta landu: istorioa, musika eta koreografia aldi berean.

## **Irakaslea**

- Prokulturako irakasle taldea

## **Nori zuzendua**

Gazteak (11-14)

## **Ikasleak eraman beharreko materiala**

Arropa eta zapata erosoak.